Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# 2022ko jarduera bilana

# 2023ko aitzinikusi jarduera programa

## EEPren hizkuntza politikaren esparrua

- **Hizkuntza Politika Proiektua: "Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun"**

  - 2006ko abenduaren 26an onartua, EEPk eraman euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren dokumentu estrategikoa

  - hamabi erronka nagusi hiru familiatan sailkatuak:
    - Euskararen familia bidezko transmisioa, lehen haurtzaroaren harrera eta irakaskuntza
    - Euskararen erabilpena: hedabide, aisialdi, argitalpen, bizitza sozial eta toponimian.
    - Zeharkako eremuak: helduen euskalduntzea, euskararen kalitatea, ikerkuntza eta motibazioa

- **2018-2022 Proiektu Estrategikoa**

  - 2018ko urriaren 19ko EEPren Biltzar Nagusiak onartua, EEPren estrategia 2018-2022 aldirako finkatzen du.

  - Hizkuntza Politika Proiektuaren jarraipena da, honen helburu nagusia eta lehentasunezko hartzaileak berretsiz, baita obratzeko printzipioak ere:
    - politika boluntarista
    - eragileen eta hiztunen parte hartze askearen errespetua
    - indarrean den lege-esparruan
    - Politiken arteko koherentzia: hizkuntza politika arlokako politiketan txertatzea

  - Hizkuntza politikaren testuinguru berria kontuan hartuz aldi berean:
    - NOTRe Legea "eskualde hizkuntzen sustapena" eskumena ofizial bilakatu zuena eta eskumen partekatua zela baieztatu zuena
    - Ipar Euskal Herria 2015-2020 lurralde kontratua, sinatzaileak, bakoitzak bere eskumeneko esparruetan, hizkuntza politikan arduratsu jokatzera engaiatu baitziren
    - 2016ko EEPren ebaluazio txostenaren gomendioak
    - 2016ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak
    - Euskal Elkargoaren sortzea eta 2018ko ekainaren 23ko Elkargo Kontseiluaren "euskararen aldeko hizkuntza politika" onartzea

  - EEPren esku-hartzearen eremua definitzen du, eremuz-eremu, hizkuntza-politikaren hiru erronka-ardatzak kontuan hartuz:
    - Euskararen transmisioa garatzea, irakaskuntzaren bidez, lehen haurtzaroaren, familia transmisioaren eta norbanako helduen euskalduntzearen bidez
    - Euskararen erabilera garatzea: egonaldiak, kirol jarduerak, argitalpena, komunikabide digitalak, bizitza sozialeko eragileak
    - Aldi berean, zeharkako eremuak eta funtzio euskarriak egituratzea, hizkuntza transmisioaren eta erabileraren erronken arrakasta bermatzeko: euskarazko formakuntza profesionala, euskara gaitasunaren egiaztapena, hizkuntza baliabideen baieztapena, eragile pribatuentzako dirulaguntza, mugaz gaindiko lankidetza, politiken ebaluazioa eta jarraipena, komunikazioa-sentsibilizazioa

## 2022ko Jarduera bilduma…

### 1/ Euskararen transmisioa garatzea

- **Irakaskuntza**

  - EEPk 2021eko abenduaren 16eko Biltzar Nagusian adostu 2021-2022rako lan programaren obratzea, Hezkuntza Ministerioarekin, alor guzietan:

    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea:
      - 1. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Baiona: 2022-23an, Baionako Hiria eta barrutiko ikuskariarekin, 2 ikastetxeren identifikatzea egingarritasun ikerketak abiatzeko
            - HEE Ezterenzubi/Eiheralarre: Bi auzapezek, SIVUko lehendakariak, barrutiko ikuskariak eta EEPk, egin zuten bilkuraren ondoren, Herriko Etxearen nahia, Herriko kontseiluko lehen erabaki negatiboaren ondorioz zenez, Hezkuntza Ministerioak egingarritasun ikerketa 2022-23 urtera gibelatzea erabaki zuen
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa
            - IKEZekin bildu eta IKEZek eskoletan 2022-23an egingarritasun ikerketen prozedura eramateko erabakia
        - 2022ko sartzean, sail elebidun berririk ez da ireki
      - 2. mailako irakaskuntza:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Miarritzeko Thermes Salins eskolako ikasleen gurasoek Jean Rostand sektoreko ikastetxean sail elebidun bat irekitzeko egindako eskaeraren ondorioz, egingarritasun ikerketak 2022-23ko lan-programan sartzeko erabakia hartu da, kopuruetan eta inguruko ikastetxeetan izan ditzakeen ondorio negatiboak ebaluatuz
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzakoa:
        - Hazparneko Armand David laborantza lizeoan "Laborantza-ekipamendu eta Paisaiagintza" izeneko bigarren profesional elebidun bat sortzeko hasitako lanen jarraipena: Izen emateen

## …2023ko Jarduera programa

### 1/ Euskararen transmisioa garatzea

- **Irakaskuntza**

  - EEPk 2022ko urriaren 13ko Biltzar Nagusian adostu 2022-2023rako lan programaren obratzea, Hezkuntza Ministerioarekin, alor guzietan:

    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea:
      - 1. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Baiona: Aristide Briand eta Lahubiague eskoletan
            - HEE Ezterenzubi / Eiheralarre
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa:
            - Baionako gune bat IKEZekin zehazteko
      - 2. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Kohorte segimendu ikerketa teknikoa Miarritzeko Jean Rostand kolegioan (potentziala langile mailan, eragin kaltegarriak inguruko kolegioko langileengan)
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa:
            - Gune bat IKEZekin zehazteko
          - Murgiltze irakaskuntza:
            - Irakaskuntza gune berriak irekitze-proiektuendako laguntza teknikoa (Seaskaren eskariz)
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzakoa:
        - Agertu diren beharrei erantzuteko sail elebidunak plantan ezartzearen egingarritasuna aztertzeko lanen jarraipena lizeoekin

kopuru apalagatik, irekiera gibelatzea 2023ra

- 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa:
  - Sail elebidunetako ikasleen euskara maila ebaluatzea:
    - CM2 (EEMBko A2 maila): 2021-22ko ebaluazioaren obratzea eskola publiko eta pribatu katoliko guzietan
    - 3.ean (EEMBko B1/B2 maila): murgiltzean eta elebidunak diren kolegio guzietan, ikasle guzien ebaluazioak obratzea eta B2 edo B1 mailako ziurtagiriak ematea, lortu mailaren arabera
    - Lizeoaren bukaeran (EEMBko B2 mailako gaitasun agiri berria sortzeko obren jarraipena):
      - Agiriaren bertsio desmaterializatuaren sortzea: lehiaketa publikoaren abiatzearen prestakuntza
  - Errektoretzak ikasturte bukaeran, sail elebidunetako ikasle bakoitzari, diploma (batxilergoa edo beste bat) lortu ondotik, ikasturte elebidun edo murgiltze baten jarraipen-ziurtagiria ematea: 2021eko ziurtagirien igortzea ikastetxeei
  - Batxilergoaren eta kolegioko brebetaren diplomak: Hezkuntza Ministerioari eskaera, elebitasun aipamena idazteko sail elebidunean ziren ikasle guzientzat
  - Irakasleen formakuntza:
    - Jatorrizko formakuntza: irakaskuntza elebidunari dagozkion berezitasunak hobeki kontuan hartzeko lana errektoretzarekin, MEEF masterra eta BMUko arduradunekin ikusirik
    - Formakuntza jarraikia:
      - Lan iraunkorra: Hezkuntza Ministerioaren formakuntza jarraikiko plana obratzea
      - Euskara eta euskaraz irakatsi Unibertsitateko Diploma: UDaren egokitze adostua 2022-23ko
      - Sail elebidun publikoko irakasleen formakuntza ekintza puntualak: "hizkuntzen didaktika integratua", Ibon Manterolaren eskutik
  - 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketarako orientabide dokumentua:
    - Eskola guzietan, 2017-18ko egitarau berriei egokitua den orientabide dokumentuaren banatzea
  - 1. mailako irakaskuntza publikoan, 2022ko eskola sartzeko eskola



- 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa:
  - Sail elebidunetako ikasleen euskara maila ebaluatzea:
    - CM2 (EEMBko A2 maila): 2022-23ko ebaluazioaren obratzea eskola publiko eta pribatu katoliko guzietan
    - 3.ean (EEMBko B1/B2 maila): 2022-23 ebaluazioen obratzea 3 sailetako kolegioetan
    - Lizeoaren bukaeran (EEMBko B2 mailako gaitasun agiri berria sortzeko obren jarraipena):
      - Ziurtagiriaren bertsio desmaterializatuaren sortzea: Hornitzailearen hautatzea eta lanen segimendua
  - Batxilergoko eta kolegioetako brebeta nazionalaren titulua: Hezkuntza Ministerioaren eskariaren segitzea, elebitasun aipamena idazteko sail elebidunean ziren ikasle guzientzat (2022ko irailaren 14ko topaketan hasitako eztabaiden kari)
  - B2 mailako ziurtagiriak (B1, behar izanez gero) emateko aldi baterako dispositiboa, hirugarren amaieran dauden ikasleentzat (eredu elebidun edo murgilduan direnentzat): EEPren bidez ikastetxeetara igortzea 2022ko ekaineko ziurtagiriak.
  - Ziurtagiria igortzeko aldi baterako dispositiboa, eredu elebidun edo murgiltze batean, terminalaren bukaeran: 2022ko ekaineko egiaztagiriak ikastetxeetara igortzea
  - Lehen mailako irakasleen formakuntza dispositiboak irakaskuntza elebidunaren berezitasunetara egokitzea:
    - Jatorrizko formakuntza: irakaskuntza elebidunari dagozkion berezitasunak hobeki kontuan hartzeko lana BMUko MEEF arduradunekin ikusirik
    - Formakuntza jarraikia:
      - Lan iraunkorra: Hezkuntza Ministerioaren formakuntza jarraiki plana obratzea
      - Euskara eta euskaraz irakatsi Unibertsitateko Diploma: UDren egokitze adostua 2023-24ko eta komunikazioa
      - Sail elebidun publikoko irakasleen formakuntza ekintza puntualak: Ibon Manterolak "HEDIetan hizkuntzaren irakaskuntza kontutan hartzea" esku-hartzeak
      - Irakatsitako hizkuntza mailaren hobetzea: euskara hobetzeko

mapako neurriei buruzko elkar aditzea, Hezkuntza Ministerioaren eta EEPren artean

- 1. mailako sail elebidunetan, esperimentazio pedagogikoak egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz:
  - Eskualdeetako beste hizkuntzen erakunde publikoekin eta Korsikako Lurralde Kolektibitatearekin parte hartzea Ministerioak 2021eko abenduaren 14ko eskualdeko hizkuntzen eta kulturen zirkular berria idazteko antolatu hitzartze-bilkuretan:
    - 2021eko irailaren 15ean, bideokonferentzia Lehen ministroa eta Hezkuntza ministroarekin
    - 2021eko urriaren 19an Hezkuntza ministerioan bilkura
    - 2021eko abenduaren 14ko zirkularraren argitalpena, murgiltze irakaskuntzarako esparru berri bat ezartzen duena "Murgiltze bidezko irakaskuntza hori irakaskuntza elebidunaren ikasteko estrategia posible bat da", eta izaera esperimentalaren amaiera ematen du, murgiltze irakaskuntza publiko eta pribatu katolikoaren obratzeko
  - Zirkular honetan oinarrituz, gidaliburu baten lanketa, murgiltze egitasmoen eramaileentzat, eta gidaren bozkatzea 2022ko martxoaren 31ko EEPren Biltzar Nagusian
  - Ama-eskoletan murgiltze eredua garatzeko politika akuilatzea: irakasle taldeen jarduera gidaliburua aurkezteko eta murgiltze ereduaren onurei buruz sentsibilizatzeko
  - Irakasle taldeei laguntza teknikoa
  - 2021eko irailaren 9an igorri gutuna, Lehen Ministroaren Hezkuntza, Goi Mailako Hezkuntza, Ikerketa, Gazteria eta Kiroleko sailburuari zuzendua, Larraineko eskolako murgiltze proiektua baimentzeko
  - 2022 sartzerako eskaera berrien tratamendua: Hezkuntza Ministerioak honakoak baimendu ditu:
    - 2 murgiltze proiektu berri: Larraine eta Barkoxeko eskola publikoak
    - murgiltze ereduaren zabaltzea Irisarriko eskola publikoko 2. ziklora
    - murgiltze ereduaren 5 hedapen Biarritzeko Thermes Salins eta Reptoun, Baionako Jules Ferryn, Ziburuko Marinelan eta Urruñako herriko eskolan
- Hezkuntza Ministerioa/Seaska/EEP hitzarmena:



formakuntza berezi bat plantan ezartzea, 3 ereduetan eta 1. eta 2. mailetako irakasle boluntarioei proposatua

- 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketarako orientabide dokumentua:
  - Esparru-dokumentuaren moldaketa, murgiltze irakaskuntzari buruzko esparruaren bilakaera barne hartuz eta honen hedatzea
  - "Publiko zabalaren" dokumentuaren egokitzea praktika pedagogiko berriei begira (murgiltze irakaskuntza) eta honen hedapena
- 1. mailako irakaskuntza publikoan, 2022ko eskola sartzeko eskola mapako neurriei buruzko elkar aditzea, Hezkuntza Ministerioaren eta EEPren artean
- Euskarazko murgiltze irakaskuntza garatzeko politika bultzatzailea, frantsesaren eta eskualdeko hizkuntzaren pareko ezagutza segurtatzeko xedeari erantzuten diona:
  - Irakaskuntza publiko eta pribatu katolikoan plantan diren murgiltze ereduen laguntza eta segimendua
  - Haurtzaindegitik seigarreneraino kohorteen segimendua
  - Lehen mailako ikastetxe publiko eta pribatu katolikoetan murgiltze ereduan diren ikasleen euskarazko ebaluazioa ama-eskolaren bukaeran
  - Murgiltze irakaskuntza ereduko proiektuen sustatzaileentzako gida: eskola guzietara bidaltzea eta irakasle taldeen informazio ekintzak
  - Irakasle taldeen laguntza teknikoa
  - EEPn lan amankomuna egitea irakaskuntza elebidunaren izaera fakultatiboaren arazoari heltzeko, bereziki murgiltze-metodoaren bidez
- Hezkuntza Ministerioa/Seaska/EEP hitzarmena:
  - Hitzarmena berritzea: hitzarmen berria idazteko lan itundua
  - Hitzarmen berriaren onartze eta izenpetzea
- Bigarren mailan euskaraz irakasten diren euskarazko ikasgaien ordu kopurua emendatuz irakaskuntza elebiduna azkartzea:
  - Ikastetxe elebidunei euskarazko ordu kopurua zabaltzen uztea:
    - Kolegio eta lizeo guzietan HEDIen euskarazko irakaskuntza berriak obratzen segitzea
    - Jadanik euskaraz HEDI bat irakasten duten irakasleen postuak zehaztea, HEDIen irakaskuntzak iraunkorki mantentzeko:
      - Egoera-akta eta proposamenak

- 2019-2022ko esparru-hitzarmen berriaren obratzea
- Hitzarmena berritzeko lanen abiatzea

- Bigarren mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz irakaskuntza elebiduna azkartzea:
  - Etengabeko behaketa euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko eta irakasle horien euskara maila ebaluatzea (Errektoretzako Euskara ikuskaria)
  - Obratzeko ahalak ikertzea ikastetxeetako zuzendariekin
  - Ministerioari baimena eskatzea Euskarako BMIGAren balio bikoitza beste ikasgaietara zabaltzeko (Zientziak, matematikak, gorputz heziketa, artea)
  - 2021etik aitzina, euskarazko irakaskuntzak, kudeaketa deskonzentratuko mugimendu nazionalaren postu berezi nazionalen zerrendan sartzeko aukera, korsikera eta bretoierazko irakaskuntzen gisan, akademiatik kanpo identifikatuak diren giza-baliabide euskaldunak erabili ahal izateko
- Lizeoko eta Batxilergoko erreformaren testuetan irakaskuntza elebiduna kontuan hartzea:
  - HNMaren eskariaren segimendua, Nazioarteko eta Europako sailak kudeatzen dituzten erreformaren testuek finkatutakoaren arabera, Batxilergoko eta lizeoko erreformaren testuetan frantsesa-tokiko hizkuntza sail elebidunaren antolaketa-esparrua finkatzea
  - HNMaren eskaera, erreformaren testuetan euskarazko idatzizko eta/edo ahozko proben (ahozko handia, espezialitateko irakaskuntza) aurkezteko aukera eta moldeak sartzeko, bereziki 2021eko urriaren 27an igorri oharraren bidez
  - Hezkuntza Ministro berriari 2022ko ekainaren 24ko gutun bidezko eskaera: batxilergoko eta brebetako probei buruzko argumentu baten igortzea, eta baiezko erantzunaren eskatzea, batxilergoko ahozko handiaren zati bat euskaraz pasatzeko, espezialitate batekin batean, eta elkarrizketa baten eskaera
- Irakaskuntza elebidunean sartze eta jarraikortasun tasak hobetzea:
  - Euskararen transmisioari buruzko sentsibilizazio pack bat banatzea guraso berriei (ik. Familia transmisioa), barne dituena euskaraz eta euskarazko irakaskuntza ereduen aurkezpena bai eta eremu eta sail bakoitzean irakaskuntza hori eskaintzen duen ikastegien

---

- Errektoretzak egin profilaketak
- Ikuskaritzak begiztatu giza-baliabide erabilgarriek bete ditzakeen postuak profilatzea: bilkurak eskoletako zuzendariekin, erretiratuko diren irakasleak identifikatzeko eta lanpostu berriak sortzeko
- Beren ikasgaia euskaraz irakasteko gai diren irakasleen mintegia zabaltzea:
  - Etengabeko behaketarako dispositiboa: euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak zerrendatzeko
  - Ministerioari baimena eskatzea Euskarako BMIGAren balio bikoitza beste ikasgaietara zabaltzea (Zientziak, matematikak, gorputz heziketa, artea)
  - Ministerioaren eskaera, 2. mailan eskualdeko hizkuntza eta hizkuntza irakasteagatik gezitua den diru kopuru berezi bat emateko
- Formakuntzaren bidez, irakasle boluntarioak prestatzea, beren irakasgaiaren irakaskuntza euskaraz eman ahal izateko: formakuntza beharrak zerrendatzea
- Euskaraz emanak diren oren kuoten emendatzea progresiboki laguntzea, azterketen eta material didaktikoen arloan egokituak diren dispositiboak plantan ezarriz:
  - BDN eta batxilergoa: euskarazko probei buruzko Hezkuntza Ministerioaren eskaeraren jarraipena (Zientziak DBNan, espezialitatea eta Batxilergoko Ahozkoaren partea bat)
  - Batxilergoa: Hezkuntza Ministerioari eskaera, erreformako testuetan euskarazko idatzizko eta/edo ahozko proben aukerak eta modalitateak aurkezteko (espezialitateen irakaskuntza, ahozkoa)
  - Etorkizuneko material pedagogikoaren ekoizpena orientatzea, irakaskuntza publikoan irakasgai berriak euskaraz zabaltzearen ondorioz sortutako beharren arabera
- Eredu elebiduna kontutan hartzea lizeoaren eta batxilergoaren erreformako testuetan:
  - Lizeoaren erreforma plantan ezartzeko egoera-aktaren gaurkotzea: langileak, bilakaerak, erakunde laguntzaileak
  - Hezkuntza Ministerioaren eskaera, erreformari buruzko testuetan frantses-eskualdeko hizkuntza adar elebidunaren antolaketa-

zerrenda

- Baiona hiriarekin eta Hezkuntza Ministerioarekin elkarlanean sentsibilizazio bilkurak irakaskuntza elebiduna hautatzeari buruz Baionako Brana, Malégarie eta "Citadelle"eko eskolen TPS dispositiboetan
- 2022ko apirilaren 12an, sentsibilizazio bilkura Kanboko Errobi ikastetxean, Hezkuntza Ministerioarekin, ikastetxe buruekin eta ikasleen guraso elkarteekin elkarlanean, 4. eta 5.urteko ikasle elebidunen guraso eta ikasleentzat, sentsibilizatzeko kolegio eta lizeoetan frantses-euskara sail elebidunetan eskolatzeen segitzeari buruz

▪ Euskarazko irakasle kopurua emendatzeko dispositiboak:

- Sail publiko eta pribatu katolikoko irakasleen formakuntza:
  - UDaren birdefinizio hitzartua BMUko eta Hezkuntza Ministerioko partaideekin
  - 2022-23ko euskarazko formakuntza trinkoaren prestaketa: irakasle nahianten kontratatzea, formakuntzaren antolaketa, irakasleen izen ematea (Publikoko 2. mailako 4 irakasle, AEK helduen formakuntza erakundeak prestatuak, EEPk finantzatuak beken bidez)
- Euskarako konkurtso berezirako hautagai posibleen kopurua emendatzea:
  - "Euskaraz lan egin" beka dispositiboa obratzea, 1. eta 2. mailetan sail elebidunetan euskaraz irakatsi nahi duten publikoko irakasle tituludunentzat eta publikoko edo pribatuko euskarazko kanpoko EIKL lehiaketa pasatu nahi dutenentzat besteak beste

esparrua zehazteko, irakaskuntza elebiduna barne hartzen duten testuekin bat etorriz (nazioarteko eta Europako sareak barne hartzen dituzten testuak bezala)

▪ Irakaskuntza elebidunean sartze eta jarraikortasun tasak hobetzea:

- Irakaskuntza elebidunean sartze tasen hobetzeko lana:
  - Gurasoak eskolatze elebidunaren inguruan sentsibilizatzeko dispositibo mutualizatua: sentsibilizazio "pack"-aren zabaltzea, "pack"-aren hedatzearen hobetzea, komunikazio ekintza berriak, sentsibilizazio liburuxkaren datuen eguneratzea
  - Publiko zabalarendako hitzaldiak
- Jarraikortasun tasak hobetzeko lana kurtsoan zehar: jarraikortasuna CM2 – Kolegioa / Kolegio – lizeoa:
  - Egoera-akta: jarraipen tasak, jarraipena hobetzeko tokiko ekintzak, bultzatu beharreko ekintza berrien definizioa
  - 1. eta 2. mailako ikasle eta gurasoendako informazio/sentsibilizazio bilkura

▪ Euskarazko irakasle kopurua emendatzeko dispositiboak:

- Beharrezkoak izanen diren irakaskuntzako giza-baliabideen aurreikuspena: urte anitzeko programazio bat plantan ezartzea, beharrezkoak diren irakaskuntza baliabide eta baliabideen aurreikuspen bat barne hartuko duena
- Sail publiko eta pribatu katolikoko irakasleen formakuntza:
  - Hezkuntza Ministerioa/Unibertsitateak/EEPren esparru-hitzarmenaren lehentasunezkotzat jotzen diren ekintzak obratzeko lana:
    - ▪ Unibertsitate diploma: UDren birdefinizio hitzartua
    - ▪ Euskarazko formakuntza trinkoa, gaur egun frantsesez aritzen diren 1. eta 2. mailako irakasle tituludunentzat eta euskaraz irakasteko borondatezkoentzat: 2023-24rako nahiant diren irakasleak kontratatzea, formakuntzaren antolaketa, irakasleak 2023-24 formakuntzan izen ematea
    - ▪ Ikasle euskaldunen sentsibilizazioa euskararen eta euskarazko irakaskuntzako lanbideei buruz: irakaskuntzako lanbideei buruzko sentsibilizazio ekintzak
- "Euskaraz lan egin" beken dispositibo esperimentala
  - Euskararen inguruko formakuntza trinkoarendako dirulaguntza norberaren proiektuetarako lan-geldialdian diren funtzio

- Ikasmaterialaren ekoiztea:
  - EEPren 2021eko urriaren 15eko Biltzar Nagusiaren deliberoaren bidez, Ikas/Errektoretza/EEP 2021-2025 Hitzarmen-markoaren onartzea
  - Ikas/Errektoretza/EEP 2021-2025 Hitzarmen-markoaren obratzea
  - Ikas eta EEPren arteko Hitzarmen-markoaren urteko eranskinaren obratzea
  - Ikasek galdenik, Hezkuntza Ministerioak, 2022ko uztailaren hastapenean, Irandatz ikastetxeko 2. mailako irakasle bat (2022-23 ikasturterako, lanaldi erdian) Ikasen eskura ezartzearen eskaria sostengatzea, matematiken euskarri pedagogikoen ekoizpena bermatzeko
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea eta 2021eko argitalpen programa diruztatzea (oinarri hitzarmenaren 2021 eranskina)
    - Ecole des loisirs argitaletxeko *Calinours va à l'école* albumaren itzulpena, 1. zikloarentzat, aurreikusi kostua: 5.427 €
    - *Hats gora*, P. Solorzanok idatzia 1., 2. eta 3. zikloentzat, aurreikusi kostua: 10.972 €
    - *Hartza*, R. Elosegik idatzia 2. zikloarentzat, aurreikusi kostua: 3.765 €
    - *MHM: metodo heuristikoa CM1 mailan*, Nathan argitaletxeko MHM : méthode heuristique pour le CM1 metodoaren itzulpena, 3. zikloarentzat, aurreikusi kostua: 13.345 € orotara
      - *Mini fitxategiak: 5.017 €*
      - *Material fotokopiagarria: 8.328 €*
    - *Mugak gaindituz*, X. Itcainak idatzia 3. eta 4. zikloentzat, aurreikusi kostua: 7.240 €
    - *Euskara 2. mailan*, 2. mailan euskara irakasteko baliabideen

publikoko irakasle titularrendako eta lehen eta bigarren mailako eredu elebidunetan euskaraz irakatsi nahi dutenendako, eta EIKLrako etorkizuneko hautagaientzat
  - 2. mailako irakaskuntza publikoko 4 irakasle titularrendako dispositiboaren obratze berezia
- Formakuntza trinkoa irakaskuntza pribatu katolikoko irakasleentzat: 2023-24 formakuntzarako hautagaien aurkitzea eta kontratazioa

- Ikasmaterialaren ekoiztea:
  - Ikas/Errektoretza/EEP 2021-2025 hitzarmen koadroaren obratzea
  - Ikas eta EEPren arteko hitzarmen koadroaren urteko eranskinaren obratzea
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea eta 2022eko argitalpen programa diruztatzea (2022ko oinarrizko hitzarmenaren eranskina)
    - *Hartza iratzarri da*, Xantal Barneixek sortu albuma, 1. eta 2. zikloentzat, aurreikusi kostua: 4.021 €
    - *Izar saltzailea*, Eneko Bidegainek eta Ane Baskaranek sortu albuma 3. zikloarentzat; aurreikusi kostua: 11.169 €
    - *Intza eta Tomas laminen iturria*, Elise Diletek eta Antton Hariñordokik sortu albuma 3. et 4. zikloentzat; aurreikusi kostua: 6.407 €
    - *Matematikako Metodo Heuristikoa (MHM) 4. urtekoentzat*, Canoperen Les fondamentaux bideoen egokitzapena: 23 bideo, aurreikusi kostua: 6.900 €
    - *Matematikako Metodo Heuristikoa (MHM) 5. urtekoentzat*, Nathan argitaletxearen metodoaren itzulpena, aurreikusi kostua 12.465€:
      - *Mini-fitxategiak*
      - *Material fotokopiagarria*
      - *Bideoak*
    - *Euskara 4,* 4. urtean, materialaren sortzea (R. Elosegi), aurreikusi kostua: 8.827 €
    - *Euskara 2. mailan (2022),* euskara irakasteko baliabideen sortzea (segida) 2. mailan programa berrien arabera; aurreikusi kostua: 20.522 € (postu erdi baten diruztatzea 2022ko urtarriletik abendura)

sortzearen jarraitzea aurreikusi kostua: 24.598 €
- *Historia 2. mailan*, pedagogia tresnen sortzea, aurreikusi kostua: 26.920 €
- Zazpi berrargitalpen:
  - *Aditzen karta,* Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork lantzeko karta, aurreikusi kostua: 1.921 €
  - *Haserre gorria,* Grosse colère albumaren berrinprimatzea, aurreikusi kostua: 3.331 €
  - *Samurgoa,* aurreikusi kostua: 2.354 €
  - *AEK-ren Ikasbide metodoa A1.1,* ikaslearen fitxategia, aurreikusi kostua: 7.017 €
  - *AEK-ren Ikasbide metodoa A1.2,* ikaslearen fitxategia, aurreikusi kostua: 4.208 €
  - *AEK-ren Ikasbide metodoa A2.1,* ikaslearen fitxategia, aurreikusi kostua: 3.756 €
  - *AEK-ren Ikasbide metodoa A2.2,* ikaslearen fitxategia, aurreikusi kostua: 3.224 €

- Eskolaldi inguruko denboran euskararen erabilpena sustatzea: 2021-22 ikasturteko proiektu deialdia:
  - 2021-22ko proiektu deialdian parte hartu duten 78 ikastetxeen 175 proiektuak aztertzea
  - Proiektuen azterketa, EEPko zerbitzuak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kultura Poloa, Hezkuntza Ministerioa (Errektoretza eta DSDEN) eta irakaskuntzako sail bakoitzeko aholkulari pedagogikoak batzen dituen batzorde tekniko baten bidez.
  - EEPk 2021eko abenduaren 16ko Biltzar Nagusian erabakitzea
  - 2021-22ko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea
    - Proiektu eramaileek 2022ko ekainaren 26rako helarazi beharreko



- *Historia kolegioan (2022)*, pedagogia tresnen sortzea (segida), aurreikusi kostua: 29.814 € (postu erdi baten diruztatzea 2022ko urtarriletik abendura)
- 10 berrargitalpen:
  - *Euskara 1 – eskuliburuaren 1. partea,* berrargitalpena; aurreikusi kostua*:* 4.208 €
  - *Euskara 1 – eskuliburuaren 2. partea,* berrargitalpena; aurreikusi kostua: 3.000 €
  - *Euskara 2 – eskuliburua,* berrargitalpena; aurreikusi kostua: 6.354 €
  - *Haramat CE1, trebatzeko fitxategia eta geometriako kaiera,* Hatier itzulpenak; aurreikusi kostua: 9.428 €
  - *Haramat CE2, trebatzeko fitxategia eta geometriako kaiera,* Hatier itzulpenak*; aurreikusi kostua: 8.856 €*
  - *Haramat CM1 eskuliburua,* Hatier itzulpena; aurreikusi kostua: 6.837 €
  - *Fisika eta Kimika 4.a eskuliburua,* Ikasek sortua; aurreikusi kostua: 1.529 €
  - *Nerabeen galdeak (2022),* Inpes itzulpena; aurreikusi kostua: 1.092 €
  - *Ikasbide A1.1, ikaslearen eskuliburua* (liburudendetan zabaltzeko); aurreikusi kostua: 2.819 €
  - *3 album, Ikasek sortuak: Beldartxo lagunkina, Hartxoa baratzean gaindi, Har ttipia baratzean gainti;* aurreikusi kostua: 2.818 €

- Eskolaldi inguruko denboran euskararen erabilpena sustatzea: 2022-23 ikasturteko proiektu deialdia:
  - 2022-23ko proiektu deialdian parte hartu duten 59 ikastetxeen 133 proiektuak aztertzea
  - Proiektuen azterketa, EEPko zerbitzuak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kultura Poloa, Hezkuntza Ministerioa (Errektoretza eta DSDEN) eta irakaskuntzako sail bakoitzeko aholkulari pedagogikoak batzen dituen batzorde tekniko baten bidez
  - EEPk 2022ko urriaren 13ko Biltzar Nagusian erabakitzea
  - 2022-23ko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea
    - Proiektu eramaileek 2023ko ekainaren 30erako helarazi beharreko

## 2022ko Jarduera bilduma…

egiaztagiriak aztertzea
- Dirulaguntzaren tratatzea eta isurtzea
- 2021-22ko bilana egitea
    - Egungo dispositiboa ebaluatzea eta aztertzea, eta 2022-23ko dispositiboaren orientabide eta modalitateak definitzea

- Irakaskuntzako datu-basea:
    - Irakaskuntzako datu-basea 2021-22 ikasturterako eguneratzea, 1. eta 2. mailetarako eta hiru sareetarako
    - 2021-22ko egoera eta 2004 geroztiko bilakaera aztertzea

- Hezkuntza Ministerioa/Eskualdea/Departamendua/Euskal Elkargoa hitzarmen dispositiboaren segimendua:
    - 2021-22 lan-programaren obratzeari buruzko bitarteko bilduma prestatzea: irakaskuntza elebiduneko sail berriak irekitzeko egingarritasun azterketen bilanak, eskolako kartaren neurriak azterketa, esperimentazio proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea
    - 2021-22 ikasturteko jardueren bilana eta 2022-23 lan-programaren proposamena prestatzea

- Eragileak diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

- Leha dispositiboaren gidaritza eta animazioa:
    - EEP, Departamendua, FALK eta MSA lotzen dituen partaidetza dispositiboa arraberritzea, Euskal Elkargoa sartuz: 2022 hitzarmenaren onartzea eta izenpetzea
    - Leha dispositiboaren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboaren plantan jartzea eta emaitzen profesional zein partaideei aurkeztea (ik. Ebaluazioa)
    - Urte anitzetako Leha hitzarmen partaidetza berriaren prestatzea
    - Labeltze batzordearen animazioa:
        - Labeltze eskaera egin duten edo labela bukatu zaien haurtzaindegien diagnostikoa egitea

## …2023ko Jarduera programa

egiaztagiriak aztertzea
- Dirulaguntzaren tratatzea eta isurtzea
- 2022-23ko bilana egitea
    - Egungo dispositiboa eguneratu eta ebaluatzea, eta 2023-24rako dispositiboaren orientazioak eta modalitateak definitzea

- Irakaskuntzako datu-basea:
    - Irakaskuntzako datu-basea 2022-23 ikasturterako eguneratzea, 1. eta 2. mailetarako eta hiru sareetarako
    - 2022-23ko egoera eta 2004 geroztiko bilakaera aztertzea

- Hezkuntza Ministerioa/Eskualdea/Departamendua/Euskal Elkargoa hitzarmen dispositiboaren segimendua:
    - 2022ko abenduaren 8ko Biltzar Nagusiak 2017-2022 esparru-hitzarmena urte betez luzatzeko gehigarria onartzea
    - 2022-23 lan-programaren obratzeari buruzko bitarteko bilduma prestatzea: irakaskuntza elebidun sail berriak irekitzeko egingarritasun azterketen bildumak, esperimentazio proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea
    - 2022-23 ikasturteko jardueren bilduma eta 2022-23 lan-programaren proposamena prestatzea

- Eragileak diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

- Leha dispositiboaren gidaritza eta animazioa:
    - EEP, Departamendua, FALK, MSA eta Euskal Elkargoa lotzen dituen partaidetza dispositiboa arraberritzea: 2023-27 hitzarmenaren onartzea eta izenpetzea
    - Dispositiboaz diren informazio bilkuretan parte hartzea
    - Leha labeltze dispositiboaz haurtzaindegi eta eragileen (kolektibitate, elkarte) eskaerei erantzutea
    - Labeltze batzordearen animazioa:
        - Labeltze eskaera egin duten edo labela bukatu zaien haurtzaindegien diagnostikoa egitea

## 2022ko Jarduera bilduma…

- Labeltze eskaerak aztertzen dituen Labeltze batzordeko bilkurak antolatzea eta animatzea
  - Leha labeltze dispositiboaz haurtzaindegi eta eragileen (kolektibitate, elkarte) eskaerei erantzutea

- Lehen haurtzaroko euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ik. Familia transmisioa)

- Eragileak EEP/EJ lankidetzarako Fondoaren bitartez diruz laguntzea (haurtzain etxeak bakarrik, haurtzaindegiak ez bezala, ez baitira FALKeko dispositiboetan hautagarri)

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe-haurtzainentzat Departamendu Kontseiluak eraman euskarazko agirien dispositiboaren obratzean laguntzea, eskaera egin ondotik

  - Etxe-haurtzainen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ik. beherean Familia transmisioari buruzko atala)

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berriak sentsibilizatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatuaren obratzea :
    - Ekoizpen bateratua
    - Familiei banatzea

- **Norbanako helduen euskarazko formakuntza**

  - Norbanako helduen euskarazko formakuntza sustatzea:
    - Alorreko politika publikoaren koadroa definitzea:

## …2023ko Jarduera programa

- Labeltze eskaerak aztertzen dituen Labeltze batzordeko bilkurak antolatzea eta animatzea
- Dispositiboari ekarri behar litzaizkiokeen aldaketak sartzea, 2022ko ebaluazioaren oinarrian eta partaideekin partaidetzan

- Lehen haurtzaroko euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ik. Familia transmisioa)

- Eragileak EEP/EJ lankidetzarako Fondoaren bitartez diruz laguntzea (haurtzain etxeak bakarrik, haurtzaindegiak ez bezala, ez baitira FALKeko dispositiboetan hautagarri)

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe-haurtzainentzat Departamendu Kontseiluak eraman euskarazko agirien dispositiboaren obratzean laguntzea, eskaera egin ondotik

  - Etxe-haurtzainen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ik. beherean Familia transmisioari buruzko atala)

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz guraso berriak sentsibilizatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatuaren obratzea:
    - Ekoizpen bateratua
    - Familiei banatzea

- **Norbanako helduen euskarazko formakuntza**

  - Norbanako helduen euskarazko formakuntza sustatzea:
    - Alorreko politika publikoaren koadroa definitzea:

- Norbanako helduen euskarazko formakuntzaren garapena eta egituraketa helburu duen hizkuntza politika baten definitzeko gisan, bide-orriaren onartzea 2022ko ekainaren 30eko Biltzar Nagusiaren partetik
- Egituraketa lanen elikatzeko gisan, norbanakoen euskalduntzearen egoeraren argazkia eraikitzea
- Politika publikoaren koadroaren definitze lanen abiatzea, definitu bide-orriaren oinarrian, hunkituak diren partaide guziekin kontzertazioan

- Anartean, eragileei dirulaguntza segitzea, EEP/EJ dirulaguntza deialdiaren bitartez
- Euskararen ikasteari helduen sentsibilizatzea: Euskal elkargoak hirugarren urtez eraman "Vivez le Pays Basque en VO" komunikazio kanpainaren definizio lanetan eta finantzazioan parte hartzea

## 2/ Euskararen erabilpena sustatu

### 2.1. Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea

- **Aisialdiko harrera kolektiboa**

- Uda Leku eragilea laguntzen jarraitzea:
  - Herri blokearen finantzamenduen mobilizatze lana segitzea Uda Lekuk eskaintzen duen aisialdi harrerarako Euskal Elkargoarekin partaidetzan:
    - Bi bilkura antolatu dira, Uda Lekuk eskaintzen duen harrerak hunkitzen dituen eta bakoitzak 3.000 € edo gehiagoko diru eskasa eragiten duten 12 herrirekin: deuseztatua ez baitzen parte hartzailerik aski
    - Banan banako bilkura politikoak bi herrirekin (6ri galdatu zitzaien): Baiona, Angelu
    - Gutun bat igortzea aisialdi harreran eskumena duten eta Uda Lekuk eskaintzen duen aisialdi harrerak hunkitzen dituen 30 herriei (aisialdi zentroak aterpetzen dituzten herriei izan ezik)
  - EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz



- Politika publikoaren koadroaren definitze lanen segitzea, definitu bide-orriaren oinarrian, hunkituak diren partaide guziekin kontzertazioan

- Anartean, eragileei dirulaguntza segitzea, EEP/EJ dirulaguntza deialdiaren bitartez

## 2/ Euskararen erabilpena sustatu

### 2.1. Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea

- **Aisialdiko harrera kolektiboa**

- Uda Leku eragilea laguntzen jarraitzea:
  - Uda Lekuk eramaten duen harrera eskaintza finantzatzeko Herri blokeko diruztatzaileak mobilizatzeko lanen segitzea, Euskal Elkargoarekin lankidetzan:
    - Herri blokearen diruztapenak biltzeko egin ekintzen bilana
  - Eragileari ez-ohiko diru laguntza ematea, hori baldintzatuz hilabete sarien igotzeari aisialdi harrerari dagokion hitzarmen kolektiboaren arabera eta ekintza plan baten definitzeari igotze hori modu iraunkorrean bideratu ahal izateko
  - EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea, aisialdi harrera diruztatzeko dauden zuzenbide komuneko laguntzen osagarriz
  - Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren obratzearen jarraipena Gidaritza

laguntzea, aisialdi harrera diruztatzeko dauden zuzenbide komuneko laguntzen osagarriz
  - Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren bukatzea, onartzea, izenpetzea eta obratzea

- Egonaldiak: mugaz gaindiko euskarazko bi egonaldi esperimental obratzea Azkoitian (Gipuzkoa), sail elebidunetako ikasleentzat, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean:
  - Aste beteko egonaldi 1 9-12 urteko haurrentzat: 21 haur (63 eskaera) Ipar Euskal Herritik, eta 27 Hego Euskal Herritik
  - Aste beteko egonaldi 1 13-15-12 urteko haurrentzat: 14 gazte (14 eskaera) Ipar Euskal Herritik, eta 6 Hego Euskal Herritik

- **Arte eta kultura heziketa**

  - Eragile pribatuak AKH eskaintza bat egituratzen laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Irakaskuntza artistikoa: musika eskolak**

  - Fondo komunaren bidez sostengatuak diren musika eskolendako dispositibo eta finantzamendu komunen mobilizatze lanaren segitzea: Euskal Elkargoarekin eta Departamenduarekin trukaketak

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - 2. mailako ikastetxeak eta liburuaren munduan dihardutenelkarteak euskarazko euskarriak erosten laguntzea:
    - 2021-2022an EEPk eraman dispositiboaren baitan eragileek helarazi laguntza eskaeren tratatzea
    - Dispositiboaren berrabiatzea 2022-2023an



Batzorde bat sortuz

- Egonaldiak: esperimentazioaren aitzina eramatea beste bi euskarazko egonaldi antolatuz sail elebiduneko ikasleentzat, Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan

- **Arte eta kultura heziketa**

  - Eragile pribatuak AKH eskaintza bat egituratzen laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Irakaskuntza artistikoa: musika eskolak**

  - Zuzenbide komuneko dispositibo eta diruztapenak mobilizatzeko lanaren bukatzea, fondo komunetik laguntzen diren musika eskolentzako

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - 2. mailako ikastetxeak eta liburuaren munduan dihardutenelkarteak euskarazko euskarriak erosten laguntzea:
    - 2022-2023an EEPk eraman dispositiboaren baitan eragileek helarazi laguntza eskaeren tratatzea
    - Dispositiboaren berrabiatzea 2023-2024an

## 2022ko Jarduera bilduma…

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eskudun diren erakundeekin elkarlanean lan egitea, euskarazko argitalpenerako eragile eraginkor kate baten egituratzeko:
    - Baldintza-agiri baten definitze lanetan parte hartzea, euskarazko liburuaren sail osoaren egoeraren azterketa egiteko
    - Kanpoko hornitzaile batek bideratu euskarazko liburuen eta elebitako liburuen argitalpenari, hedapenari eta banaketari buruzko ikerketa baten koordinazioan parte hartzea (ALCAk/EEPk kodiruztaturik)

  - Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea:
    - Euskarazko liburuen argitalpenerako laguntza: 22 proiektu lagunduak 2022an (17 proiektu euskaraz eta 5 proiektu elebidun)
    - Merkaturatze tresnak ekoizteko argitaratzaileei laguntza: proiektu 1 lagundua 2022an
    - Euskarazko liburuen eta irakurketaren inguruan, eskolan edota eskolaz kanpoko animazio pedagogikoak eskaintzen dituzten eragileei laguntza: proiektu 1 lagundua 2022an

**2/2 - Euskarari gizartean egiazko lekua emanen dion ingurunea garatzea, ekintza egituratzaileenak lehenetsiz**

- **Hedabideak**

  - Euskarak hedabide publikoetan duen lekua garatzea:
    - France 3 eta France Bleu Pays Basque hedabideetako arduradunekin abiatu lana aitzina segitzea, haien programazioan euskarak duen tokia handitzeko aukera aztertzeko

  - Eragileak egituratzen laguntzea:
    - Kanaldude eragilearen jarraitzen eta laguntzen segitzea:
      - CSA-rekin hedatzaile estatutuari dagokion hitzarmena, eta

## …2023ko Jarduera programa

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eskudun diren erakundeekin batean lana, euskarazko argitalpeneko kate eraginkor bat egituratzeko
    - Euskarazko eta elebitako liburuen argitalpena, hedapena eta banaketari buruzko ikerketaren bururatzea
    - Ikerketaren ondorioetan oinarrituz, euskarazko argitalgintzako eragileak laguntzea zuzenbide komuneko dispositiboak erdiesten, eta beharrezkoa balitz, dispositibo horien egokitzeko eta/edo EEPren gaur egungo laguntza dispositiboen egokitzeko aukerak aztertzea, zuzenbide komuneko dispositibo horien osagarri gisa sartzeko.

  - Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea:
    - Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea orain arteko baldintza berekin

